

**KULTURA SAILA****Zk-4428**

342/1999 DEKRETUA, 1999ko urriaren 5eko, Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldari eta Euskal Kultura Ondarearen Inventario Nagusiari buruzkoa.

Euskal Kultura Ondareari buruzkoa den uztailaren 3ko 7/1990 Legearen bidez, Kalifikatutako Kultura Ondasunen Errolda eta Euskal Kultura Ondarearen Inventario Nagusia sortzen dira. Hauetan inskribatu beharko dira, hurrenez hurren, kalifikatutako kultura ondasunak eta, azken hauek adina garrantzia eta balioa eduki ez arren, euskal kultura ondarea osatzen duten elementuak.

Kalifikatutako ondasunei eta inventariatutakoei egozten zaien kultura-balioaren aldetiko mailaketa desberdinak bi lanabes berezituetan (Errolda eta Inventarioan) sailkatzen ditu batzuk nahiz besteak, antzeko funtzionamendu-logikarekin, nahiz eta berau berezkoa eta berezitua izan. Dekretu honen bitartez bakoitzaren antolamendu-era eta funtzionamendua xedatzen dira.

Lanabes hauen funtsezko zereginan ondasunok babes-tea denez, materialen idazpenak modu errazean gauzatu behar dira (alferrikako eskakizun burokratikoak alde batera utzita), baina zehatz jakinez nolakoak diren eta zenbaterainoko frogagarritasuna duten. Aldi berean, titularren eskubideek nahiz erasanak (irudian, intimitatean...) jasan ditzaketen pertsonen eskubideek bi arloren arteko oreka gordetzea eskatzen dute: batetik artxibo eta errolda publikoetara sarbidea izateko eskubidea dugu, eta bestetik intimitatearen babeserako eta ez-kutuko informazio-alor guztieta rako datuen oharpenak egiteko premia.

Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldaren eta Euskal Kultura Ondarearen Inventario Nagusiaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arautegia era honetan osotuko da: xedapen iragankor bakarrarekin, Dekretu hau indarrean sartu aurretik egindako inskripzioak beronek dakartzan xedapenetara egokituko dituena; eta azken xedapenekin, zeinak ondorengoak ekarriko dituzten: Dekretu hau garatzeko beharrezkoa den Kultura Sailari emandako ahalordetza, eta Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartzen dela indarrean.

Euskal Kultura Ondareari buruzkoa den uztailaren 3ko 7/1990 Legean datorren Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldaren eta Euskal Kultura Ondarearen Inventario Nagusiaren antolaketa eta funtzionamenduaren arautegi-garapenaren aurreikuspena Dekretu honen bitartez bideratzen da, aipaturiko Legearen Azken Xedapenetatik Lehenengoan, bigarren paragrafoan datorrenaren arabera, zeinak Lege hori betearazteko behar diren arautegi-xedapenak emateko baimena eskratzen baitio Eusko Jaurlaritzari.

**DEPARTAMENTO DE CULTURA****Nº-4428**

DECRETO 342/1999, de 5 de octubre, del Registro de Bienes Culturales Calificados y del Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

Mediante la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, se crean el Registro de Bienes Culturales Calificados y el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, en los que deberán inscribirse respectivamente, los bienes culturales calificados y los bienes que sin gozar de la relevancia y valor de éstos, constituyen elementos integrantes del patrimonio cultural vasco.

La diferente graduación del valor cultural atribuido a los bienes calificados y a los inventariados, agrupa a unos y a otros en dos instrumentos diferenciados (Registro e Inventario) con una lógica de funcionamiento similar aunque propia y diferenciada. A través de este Decreto se establece el régimen de organización y funcionamiento de cada uno de ellos.

El esencial cometido de protección exige que los asientos que se produzcan sean materializados con sencillez (huyendo de exigencias burocráticas estériles) pero con riguroso conocimiento de su realidad y fehaciencia. A su vez, los derechos de los titulares y afectados (a su imagen, intimidad...) exigen equilibrar el universal derecho a acceso a los archivos y registros públicos, con la anotación de los datos imprescindibles para el cumplimiento de los fines de protección, y todos aquellos campos de información reservados.

La normativa relativa a la organización y funcionamiento del Registro de Bienes Culturales Calificados y del Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco se completa con la disposición transitoria única relativa a la adaptación a las disposiciones del presente Decreto de las inscripciones realizadas con anterioridad a su entrada en vigor, así como con las disposiciones finales en las que se contiene el apoderamiento al Departamento de Cultura para el necesario desarrollo de este Decreto y la explícita declaración de entrada en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

La previsión de desarrollo reglamentario de las condiciones de organización y funcionamiento del Registro de Bienes Culturales Calificados y del Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, contenida en la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, se lleva a efecto a través del presente Decreto, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final Primera, párrafo segundo de la citada Ley, que autoriza al Gobierno Vasco a dictar las disposiciones reglamentarias precisas para su cumplimiento.

Horren ondorioz, Kultura sailburuaren proposame-nez eta Gobernu Batzordeak 1999ko urriaren 5ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA  
XEDAPEN NAGUSIAK

**1. artikulua.** – Helburua.

Dekretu honen helburua honako hau da: Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldaren eta Euskal Kultura Ondarearen Inventario Nagusiaren antolaketa eta funtzionamendua arautzea.

**2. artikulua.** – Ezarpen-esparrua.

1.– Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldan kalifikatutako kultura ondasuntzat jotako ondasun guztiak inskribatuko dira, kalifikatutako kultura ondasuntzat jotszeko espedienteari hasiera emanda duten ondasun guztiak ere prebentzioz inskribatu behar direlarik.

2.– Kalifikatutako kultura ondasunen garrantzirik edo baliorik izan ez arren, euskal kultura ondarea osatzen duten ondasun guztiak Euskal Kultura Ondarearen Inventario Nagusian inskribatuko dira, Inventarioan inskribatzeko espedienteari hasiera emanda duten ondasun guztiak ere prebentzioz inskribatu behar direlarik.

**3. artikulua.** – Kultura aldetiko interesa duten ondasunen titularren jakinarazpena.

Kalifikatutako edo inventariatutako ondasunen titulares Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldari edo Euskal Kultura Ondarearen Inventario Nagusiarri, dagokionaren arabera, honako hauek jakinarazi beharko dizkiete: ondasun horiekin zerikusia duten egintza, negozio juridiko eta administrazio-ebazpen guztiak nahiz inskribaketan dauden datuek izan dezaketen edozein aldaketa.

**4. artikulua.** – Euskadiko Ondarea osatzen duten Ondasun eta Eskubideen Inventarioaren prestaketa lankidetza.

Euskal Kultura Ondarearen Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldan edo Euskal Kultura Ondarearen Inventario Nagusian inskribaturiko kultura ondasunen zerrada urtero jakinaraziko zaio Eusko Jaurlaritzako Ondarearen Zuzendaritzari, Euskal Autonomia Erkidegoaren titulartasunpean dauden ondasunak Euskadiko Ondarea osatzen duten Ondasun eta Eskubideen Inventario Nagusian inskribatzea berma dadin.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 5 de octubre de 1999,

DISPONGO:

CAPÍTULO I  
DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1.**– Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto la regulación de la organización y funcionamiento del Registro de Bienes Culturales Calificados y del Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

**Artículo 2.**– Ámbito de aplicación.

1.– En el Registro de Bienes Culturales Calificados se inscribirán todos los bienes declarados como bienes culturales calificados, debiendo anotarse preventivamente todos aquellos bienes afectados por la incoación de un expediente de declaración de bien cultural calificado.

2.– Todos aquellos bienes integrantes del patrimonio cultural vasco, que no gocen de la relevancia o posean el valor de los bienes culturales calificados serán inscritos en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, debiendo anotarse preventivamente todos aquellos bienes afectados por la incoación del expediente de inscripción en el Inventario.

**Artículo 3.**– Comunicación de los titulares de bienes de interés cultural.

Los titulares de bienes calificados e inventariados deberán comunicar al Registro de Bienes Culturales Calificados o al Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, según corresponda, todos los actos, negocios jurídicos y resoluciones administrativas que recaigan sobre los mismos y toda alteración que se produzca de los datos contenidos en la inscripción.

**Artículo 4.**– Colaboración en la confección del Inventario General de los Bienes y Derechos que constituyen el Patrimonio de Euskadi.

Anualmente se comunicará a la Dirección de Patrimonio del Gobierno Vasco la relación de bienes culturales inscritos en el Registro de Bienes Culturales Calificados y en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, a fin de garantizar la inscripción en el Inventario General de los Bienes y Derechos que constituyen el Patrimonio de Euskadi de aquellos bienes cuya titularidad ostente la Comunidad Autónoma del País Vasco.

II. KAPITULUA  
KALIFIKATUTAKO KULTURA ONDASUNEN  
ERROLDIA

**5. artikulua.**— Kalifikatutako Kultura Ondasunen inskripzio eta oharpenak.

1.— Kalifikatutako kultura ondasunak, Gobernu-batzordearen eskariz eta kalifikazioa onartu ondoren, ofizioz inskribatuko dira «Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldan», hartara egoki gorde eta ezagutarazi daitezen.

2.— «Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldan» berauekin zerikusia duten egintza eta negozio juridiko guztiak nahiz administrazio-ebazpenak idatziko dira.

3.— Halaber, Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldan idatziko dira kalifikatutako kultura ondasuntzat jotzeko espedienteari hasiera emanda duten ondasun guztiak.

4.— Kalifikatutako eta behar bezala inskribatutako ondasunen jabeek jabetasun hori adierazita uzteko es-kubidea izango dute, ondasunetan beretan nahiz berauei buruz ager daitezkeen dibulgazio-dokumentuetan.

**6. artikulua.**— Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldaren egiturak dituen atalak.

Kalifikatutako Kultura Ondasunen Errolda, gutxienez, ondorengo ataletan antolatuko da:

- Ondasun higiezinen atala.
- Ondasun higigarrien atala.

**7. artikulua.**— Inskripzioaren edukia.

1.— Kalifikatutako kultura ondasunen inskripzioak, gutxienez, honako hauek eduki beharko ditu:

a) Izena eta Identifikazio-kodea.

b) Ondasunaren Deskribapen garbi eta laburra, berau azkar eta erraz ezagutzeko moduko testu eta irudiekin; ondasun higiezinei dagokienez, gainera, berauek egoki kokatu eta lekutzeko datuen zehaztapena.

c) Kalifikatutako kultura-ondasun gisa deklaratu den eguna eta dagokien aldzikari ofizialetan agertu denekoa, Monumentu-multzoa, Kultura-gunea edota adierazpen bakuna den espreski zehatztuz. Ondasun higigarriak baldin badira, espreski adieraziko da eraikuntzaren batetik bereizgarriak diren ala ez, eraikuntzaren identifikazio eta kokapenari buruzko datuak eskainiz.

d) Jabeen nortasun-datuak eta bizilekua, eta hala badagokio, ondasunekiko edozein eskubide errealen edukitzaile eta titularrena, hartarako dituzten tituluak adieraziz.

e) Ondasun higiezinak baldin badira, Jabetza-erre-gistroko datuak (Finka, Orria, Liburua eta Udalerrria)

CAPÍTULO II  
EL REGISTRO DE BIENES CULTURALES  
CALIFICADOS

**Artículo 5.**— Inscripciones y anotaciones en el Registro de Bienes Culturales Calificados.

1.— Los bienes culturales calificados serán inscritos de oficio en el «Registro de Bienes Culturales Calificados» a los efectos de su adecuada conservación y conocimiento general, a instancia del Consejo de gobierno, una vez aprobada su calificación.

2.— Se anotarán en el «Registro de Bienes Culturales Calificados» todos los actos y negocios jurídicos, así como las resoluciones administrativas, que sobre los mismos recaigan.

3.— Asimismo, se anotarán en el Registro de Bienes Culturales Calificados los bienes afectados por la incoación de un expediente de declaración de bienes culturales calificados.

4.— Los propietarios de los bienes calificados y debidamente inscritos, tendrán derecho a la indicación de tal circunstancia, sobre los mismos o sobre los documentos divulgativos que pudieran editar al respecto.

**Artículo 6.**— Secciones en que se estructura el Registro de Bienes Culturales Calificados.

El Registro de Bienes Culturales Calificados se organizará, como mínimo, en las siguientes secciones:

- De los bienes inmuebles.
- De los bienes muebles.

**Artículo 7.**— Contenido de la inscripción.

1.— La inscripción de los bienes culturales calificados deberá contener, como mínimo, los siguientes extremos:

a) Denominación y Código de Identificación.

b) Descripción clara y concisa del bien con los datos textuales y gráficos suficientes en orden a su rápida y fácil identificación, y respecto a los bienes inmuebles concreción además, de datos para su adecuada delimitación y localización.

c) Fechas de declaración como bien cultural calificado, y de publicación de la resolución en los boletines oficiales correspondientes, con expresa indicación de si se trata de un Conjunto Monumental, de un Espacio Cultural o de una declaración singularizada. En el supuesto de los bienes muebles, se indicará expresamente si son reconocidos o no como inseparables de un inmueble respecto del que se señalarán los datos de identificación y localización.

d) Filiación y domicilio de sus propietarios, y en su caso, de poseedores y titulares de cualesquiera derechos reales sobre los mismos, con indicación de los títulos con que los ostentan.

e) En caso de los bienes inmuebles, datos del Registro de Propiedad (Finca, Folio, Libro y Municipio) y fe-

eta Erregistro horri jakinarazitako eguna; Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen 11.5 artikuluaren aurreikusten diren ondorioetarako.

f) Adierazpeneko administrazio-espelientearen dauden informazio garrantzitsuenen laburpena.

2.- Aurreko d) eta e) ataletako eskakizunak ez dira bete beharrekoak izango, baldin eta inskribatu diren Kalifikatutako ondasunak Monumentu-multzo edo Kultura-gunetakoak badira.

3.- Urtero argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Kalifikatutako ondasun higiezinen zerrenda, ekitaldian zehar Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldan inskribatutakoena, ahalik eta zabalkunderik handiena izan dezan.

#### **8. artikulua.- Prebentziozko oharpenak.**

1.- Interes kulturala duten ondasunak kalifikatzeko espelienteetan hasiera ematearen oharpen prebentiboa egingo da Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldan.

2.- Kalifikazio-espelientea erabakitzetan denean edo berau iraungitzat jotzen denean, oharpen prebentiboa. baliogabetu egingo dira. Espelienteak aldeko erabakia baldin badu, inskripzio bihurtuko da.

#### **9. artikulua.- Ondoko oharpenak.**

1.- Kalifikatutako kultura ondasunekin zerikusia duten egintza juridikorik baldin badago, edota kalifikazio-dekretoak dauzkan datuak aldatzen badira, hauek Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondasunen Erroldaren kudeaketaz arduratzen den erakundeari jakinarazten direlarik nahiz erakunde honek beste bide batez ezagutzen dituelarik, oharpenerako edo, hala badagokio, gaurtzterako administrazio-espelienteari hasiera emango zaio, eta beharrezkoak diren testigantzak jaso eta era-sanen bat izan dezaketen interesatuei entzun ondoren, egokia den ebazpena hartuko da.

2.- Aurreko paragrafoan aurreikusitakoari jarraituz, dagokion espelientea bideratzean, indarrean dagoen inskripzioak duen daturen bat zuzentzeko premia ikusten baldin bada, ofizioz egingo da bidezkoa den zuzenketa, dagokion iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratz.

3.- Hasierako inskripzio edo inmatrikulazioaren ondoren egindako oharpenak, ez badiote jatorrizkoari al-daketarik eransten, albo-ohar gisa adieraziko dira. Ida-txitako egintza juridikoak iraungitze-data edo beste baldintzaren baten pean baleude, baliogabetu egin daitetzeke hartarako bideratutako administrazio-espeliente batekin, bertan zirkunstanzia hori egiaztatuz.

#### **10. artikulua.- Baliogabetzea.**

1.- Hasierako inskripzio edo inmatrikulazioa, nahiz ondoko oharpenak, ofizioz baliogabetuko dira, osorik zein zatika, kultura ondasun izateko kalifikazioa indar-

cha de notificación al mismo a los efectos prevendidos en el artículo 11.5 de la Ley 7/1990 de Patrimonio Cultural Vasco.

f) Extracto de las informaciones más relevantes contenidas en el expediente administrativo de declaración.

2.- Las exigencias de los apartados d) y e) precedentes no serán de aplicación en los supuestos de inscripción de Conjuntos Monumentales o de Espacios Culturales declarados bienes culturales calificados.

3.- Anualmente se procederá a la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la relación de bienes inmuebles calificados e inscritos a lo largo del ejercicio en el Registro de Bienes Culturales Calificados, a los solos efectos de su general conocimiento.

#### **Artículo 8.- Anotaciones preventivas.**

1.- La incoación de expedientes para la calificación de los bienes de interés cultural será objeto de anotación preventiva en el Registro de Bienes Culturales Calificados.

2.- Las anotaciones preventivas se cancelarán por resolución del expediente de calificación, convirtiéndose en inscripciones en caso de resolución favorable, o por la declaración de caducidad del expediente.

#### **Artículo 9.- Anotaciones posteriores.**

1.- Todos los actos jurídicos recaídos sobre los bienes culturales calificados, así como las alteraciones de los datos contenidos en el Decreto de calificación, que sean comunicados al organismo encargado de la gestión del Registro de Bienes Culturales del Gobierno Vasco, ó que sean conocidos por el mismo, darán lugar a la incoación de un expediente administrativo de anotación o actualización, en su caso, que previa la incorporación de los testimonios precisos y la audiencia de los interesados afectados, dará lugar a la resolución pertinente.

2.- En el supuesto de que tramitado el oportuno expediente con arreglo a lo previsto en el apartado anterior, del mismo se deduzca la corrección de alguno de los datos contenidos en la inscripción vigente, se procederá de oficio a la oportuna rectificación publicándose el correspondiente anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco.

3.- Todas las anotaciones posteriores a la inscripción inicial o inmatriculación, que no supongan la rectificación de la misma, se harán constar como nota marginal. En caso de que los actos jurídicos anotados con tal carácter se hallaren sujetos a algún plazo de caducidad o a alguna condición, podrá procederse a su cancelación en expediente administrativo al efecto en el que se acre-dite el cumplimiento de tal circunstancia.

#### **Artículo 10.- Cancelación.**

1.- Tanto la inscripción inicial o inmatriculación, como las anotaciones posteriores serán canceladas de oficio, ya sea total o parcialmente, cuando cobre firmeza

gabe uzteko erabakiaren sendotasuna egiaztatzen de-  
nean.

2.- Inskripzioaren baliogabetza Jabetza-erregistroari jakinaraziko zaio, errolda publiko bietan aurkitzen diren datuen artean behar adinako koordinaketa eta bateratzea egon dadin.

3.- Halaber, urtero argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ekitaldian zehar inskripzioa baliogabetu zaien ondasunen zerrenda, ahalik eta zabalkunderik handiena izan dezan.

### **11. artikulua.- Erroldarako sarbidea.**

1.- Erroldan aurkitzen diren oharpenek sarbide publikoa izango dute honako salbuespen hauetan: seguritasun eta ordena publikoa, pertsonen bizitza pribatua eta intimitatea, merkataritza eta zientzia aldetiko sekretuak, edota legeek horrela xedatutakoa babestu behar dituzten informazioei buruzkoak.

2.- Pertsonen intimitateari dagozkion datuak dauzkatuen dokumentuetara pertsona horiek soilik izango dute sarbidea. Berauek, datuok osatu gabekoak edo okeerrak direla konturatzen badira, zuzentzea eta osatzea eska dezakete; baita baliogabetza eta ezabatzea ere, datu horiek idaztea eta inskribatza zekarren helburuarekin bat ez datozaela ikusiz gero.

3.- Sarbidea ukatuz edo baldintzatzu nahiz aurreko paragrafoan aipaturiko eskabideak ezetsiz, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak edo, hala badagokio, «Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldaren» arduradunak ematen duen ebazpenak arrazoituta egon beharko du eta interesatuari pertsonalki jakinarazi beharko zaio, bere aurka dauden administrazio-errekursoak espreski adierazten direlarik.

### **12. artikulua.- Idazpenen egiaztapena.**

Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldaren ardua duen funtzionarioak, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren oniritziak, idatziz eskatutako testigantza edo egiaztapenak emango ditu. Eskabideok egin ditzakete hala organo jurisdikzionalek aztertzen ari diren gaiei buruz, nola entitate publiko, pribatu edo pertsona partikularrek, baldin eta aipaturiko Erroldan aurkitzen diren datuei buruzkoa bada, beti ere aurreko artikuluan indarrean dagoen lege aplikagarriean aurreikusten diren mugenak.

### III. KAPITULUA

### EUSKAL KULTURA ONDAREAREN INVENTARIO NAGUSIA

### **13. artikulua.- Euskal Kultura Ondarearen Inben- tario Nagusia.**

1.- Euskal Kultura Ondarearen Inventario Nagusian kultura ondasunak inskribatza ofizioz burutuko da, horrela ebatzen duen Kultura sailburuaren Agindua be-

el acuerdo motivado por el que se deje sin efecto la declaración de bien cultural.

2.- La cancelación de la inscripción será comunicada al Registro de la Propiedad a los efectos oportunos de coordinación y concordancia de los datos obrantes en ambos registros públicos.

3.- Asimismo, anualmente se procederá a la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, a los solos efectos de conocimiento general, de la relación de bienes cuya inscripción haya sido cancelada a lo largo del ejercicio correspondiente.

### **Artículo 11.- El acceso al Registro.**

1.- El acceso al Registro es público en cuanto a las anotaciones contenidas en el mismo, salvo en lo referente a aquellas informaciones que hayan de ser salvaguardadas en función de la seguridad y el orden público, la vida privada y la intimidad de las personas, los secretos comerciales y científicos, o por disposición legal que así lo establezca.

2.- El acceso a los documentos que contengan datos referentes a la intimidad de las personas estará reservado a éstas, que, en el supuesto de observar que tales datos figuran incompletos o inexactos, podrán exigir que sean rectificados, completados o cancelados y borrados cuando los consideren incongruentes con las finalidades de protección a que obedece su anotación o inscripción.

3.- La resolución que se emita por la Dirección de Patrimonio Cultural o, en su caso, por el responsable del «Registro de Bienes Culturales Calificados» denegando o condicionando el acceso o desestimando las solicitudes referidas en el apartado anterior, deberá ser motivada y notificada personalmente con expresa indicación de los recursos administrativos procedentes frente a la misma.

### **Artículo 12.- Certificación de asientos.**

El funcionario encargado del Registro de Bienes Culturales Calificados emitirá, con el visto bueno de la Dirección de Patrimonio Cultural, los testimonios o certificaciones que sean solicitadas por escrito, tanto por los órganos jurisdiccionales en asuntos que estén conociendo como por las entidades públicas, privadas y particulares, siempre que sean referidas a los datos obrantes en el mencionado Registro, todo ello con las limitaciones previstas en el artículo anterior y en la legislación vigente que resulte aplicable.

### CAPÍTULO III EL INVENTARIO GENERAL DE PATRIMONIO CULTURAL VASCO

### **Artículo 13.- El Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.**

1.- La inscripción de los bienes culturales en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco se producirá de oficio, en cumplimiento de la Orden del Con-

tez, Kultura sailburuordeak hasiera emandako administracio-espeditoian, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 17. artikuluak dioenaren arabera.

2.- Euskal Kultura Ondarearen Inventario Nagusiak bere baitan gordetzen dituen kultura ondasunekin zerikusia duten egintza juridiko nahiz aldakuntza fisiko guztiak islatuko ditu.

3.- Inventario Nagusian inskribaturiko ondasunen jabeen eskubidea izango da ondasun horietan bertan edota argitaratu eta banatu daitezkeen zabalkunderako dokumentuetan inskripzioaren arrazoia agerraztea.

**14. artikulua.**- Euskal Kultura Ondarearen Inventario Nagusia osatzen duten atalak.

Euskal Kultura Ondarearen Inventario Nagusiak ondorengo atalak izango ditu, gutxienez:

- Ondasun higiezinen atala
- Ondasun higigarrien atala.

**15. artikulua.**- Inskripzioaren edukia.

1.- Inventarioatako kultura ondasunen inskripzioak, gutxienez, honako hauek eduki beharko ditu:

a) Izena eta Identifikazio-kodea.

b) Ondasunaren Deskribapen garbi eta laburra, berau azkar eta erraz ezagutzeko moduko testu eta irudiekin; ondasun higiezinei dagokienez, gainera, berauek egoki kokatu eta lekutzeko datuen zehaztapena.

c) Ondasuna Euskal Herriko Inventario Nagusian inskribatu den eguna eta, hala badagokio, ebazpena dagokien aldzikari ofizialetan agertu denekoa.

d) Jabeen nortasun-datuak eta bizilekua, eta hala badagokio, ondasunekiko edozein eskubide errealeen edukitzale eta titularrena, hartarako dituzten tituluak adieraziz.

Idatz-zati honetan esandakoa ez da exijituko, baldin eta Euskal Kultura Ondarearen Inventario Nagusian datozen inskripzioak monumentu-multzo eta kulturguneei buruzkoak badira.

e) Titulartasun-transmisiokoak eta lekualdaketak.

f) Inskripzioko administracio-espeditoian dauden informazio garrantzitsuenen laburpena.

2.- Urtero argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ekitaldian zehar Euskal Kultura Ondarearen Inventario Nagusian inskribatutako ondasun higiezinen zerrenda, ahalik eta zabalkunderik handiena izan dezan.

**16. artikulua.**- Prebentziozko oharpenak.

1.- Interes kulturala duten ondasunak inskribatzeko espeditoiei hasiera ematearen oharpen prebentziboa

sejero de Cultura que así lo resuelva, en expediente administrativo incoado por el Viceconsejero de Cultura, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 17 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

2.- El Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco reflejará todos los actos jurídicos y las alteraciones físicas que afecten a los bienes culturales en él incluidos.

3.- Los propietarios de los bienes inscritos en el Inventario General, tendrán derecho a la indicación sobre los mismos bienes afectados o en los documentos divulgativos que puedan editar y distribuir, de la circunstancia de la inscripción.

**Artículo 14.**- Secciones en que se estructura el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

El Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco se organizará, como mínimo, en las siguientes secciones:

- De los bienes inmuebles.
- De los bienes muebles.

**Artículo 15.**- Contenido de la inscripción.

1.- La inscripción de los bienes culturales inventariados deberá contener, como mínimo, los siguientes extremos:

a) Denominación y Código de Identificación.

b) Descripción clara y concisa del bien con los datos textuales y gráficos suficientes en orden a su rápida y fácil identificación, y respecto a los bienes inmuebles concresión además, de datos para su adecuada delimitación y localización.

c) Fecha de inscripción del bien en el Inventario General del País Vasco y de publicación, en su caso, de la resolución en los boletines oficiales correspondientes.

d) Filiación y domicilio de sus propietarios, y en su caso, de poseedores y titulares de cualesquiera derechos reales sobre los mismos, con indicación de los títulos con los ostentan.

Las indicaciones de este apartado no se exigirán en los supuestos de inscripción en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco de conjuntos monumentales y de espacios culturales.

e) Las transmisiones de titularidad y los traslados.

f) Extracto de las informaciones más relevantes contenidas en el expediente administrativo de inscripción.

2.- Anualmente se procederá a la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la relación de bienes inmuebles inscritos a lo largo del ejercicio en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, a los solos efectos de su general conocimiento.

**Artículo 16.**- Anotaciones preventivas.

1.- La incoación de expedientes para la inscripción de los bienes de interés cultural en el Inventario Gene-

egingo da Euskal Kultura Ondarearen Inventario Nagusian.

2.- Inskripzio-espedientea erabakitzen denean edo berau iraungitzat jotzen denean, oharpen prebentiboak. baliogabetu egingo dira. Expedienteak aldeko erabakia baldin badu, inskripzio bihurtuko da.

#### **17. artikulua.**- Funtzionamendu-erregimena.

Ondoren egindako oharpenak, inskripzio eta oharpenen zuzenketa edo baliogabetza, Inventario Nagusira sartzeko edo berau konsultatzeko modua, testigantzak edo egiaztapenak ematea, eta fondoak erreproduzitza Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldari buruz aurreko kapituluan datozen artikuluek (9tik 12ra bitartekoek) diotenen arabera bideratuko dira.

#### XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Bakarra.**- Dekretu hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epe barruan egokitu egin beharko zaio Dekretua horrek dioenari Kalifikatutako Ondasunen Erroldan nahiz Euskal Kultura Ondarearen Inventario Nagusian ordura arte egindako inskripzio eta oharpenen edukia.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**- Dekretu honen garapenerako beharezkoak direnak xedatzeko ahalmena ematen zaio Kultura Sailari.

**Bigarrena.**- Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko urriaren 5ean.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,  
M.<sup>a</sup> CARMEN GARMENDIA LASA.

ral del Patrimonio Cultural Vasco será objeto de anotación preventiva en dicho Inventario.

2.- Las anotaciones preventivas se cancelarán por resolución del expediente de inscripción, convirtiéndose en inscripciones en caso de resolución favorable, o por la declaración de caducidad del expediente.

#### **Artículo 17.**- Régimen de funcionamiento.

Las anotaciones posteriores, la rectificación o cancelación de inscripciones o anotaciones, el acceso o consulta del Inventario General, la emisión de testimonios o certificaciones, y la reproducción de sus fondos, se regirán por lo dispuesto en los artículos correspondientes (9 a 12) del capítulo anterior relativo al Registro de Bienes Culturales Calificados.

#### DISPOSICIONES TRANSITORIAS

**Única.**- En el plazo de seis meses desde la entrada en vigor del presente Decreto se procederá a adaptar el contenido de las inscripciones y anotaciones realizadas hasta la fecha en el Registro de Bienes Calificados y en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco a lo dispuesto en el mismo.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**- Se faculta al Departamento de Cultura para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

**Segunda.**- El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 5 de octubre de 1999.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,  
M.<sup>a</sup> CARMEN GARMENDIA LASA.